

zakilixut

© Olariagak



Eneko Bidegain | GARRUZE

ATZEKOZ AURRERA

Aurreko urteetan baino salmenta gutxiago izan zen atzo Garruzeko azokan.

CHRISTOPHE DE PRADA-SAMARUTI

Zerua goizetik mehatxuka ari zen, eta mehatxuak bete zituen. Goiz bukaeran sekulako euri erauntsia erori zen zaldi, behor eta astoen gainera. Jendea aterpeen azpian metatu zen. Uztailaren azken egunerako giro txarra, mendez mende irauten duen Garruzeko azokarentzat. Eta funtsean, euri ala ez, Garruzeko plaza ez zen tratulari eta laborariz mukuru betea, ez eta ere zaldiz. Mihise, jantzi eta beste tresna oro saltzen zuten merkatari gehiago ageri zen. Zaldiak baziren, bai, makila eskuan eta boneta buruan zebiltzanak ere bai, eta zenbait turista eta herri-tar, baina gutxi.

«Gaur egun ez da gehi-ago garai batez bezainbat tratu egiten», komentatzen zion ohitura duen laborari batek bertze bati. Gero eta gehiago, zaldiak eta behorak bezperan saltzen dira, etxeetan.

Halere, Garruzeko itzulia ohitura bat da, oraino ere, askorentzat. Belaunaldi guztiek elkar ikusten dute. Aitatxi buruzuriei tratulari sena eta kabale-tan ezagutza sendi zaie. Aitarekin etorri haurrek abereak ikusi nahi dituzte. Normal. Ederrak dira, eta atzokoek ere txitxi pus-



Tratulariak eta ikusleak

Garruzeko azokan ez da ohi bezainbat zaldi eta behor saldu, baina mendeetako ohitura gorde da


ka ederrak zituzten, bizkar sendoak eta izter gihartsuak. Haien gainean ixtaklok ibiltzeko aproposak. Baziren horretara ausartzen ziren lagunak. Ez ziren, ordea, behor guztiak norbait gainean onartzeko prest, batzuk arras asaldaturik baitzeuden, lepotik zeukaten sokatik askatu nahiz.

Zamari guztiak ez ziren laborarietak, ez eta ere salgai. Aisialdi talde batek itzulia eman zuen handik, zaldi gainean zebiltzala, guztiak berdin jantzita. Euria hasi zuelarik, geldialdia egin zuten Garruzeko plazan. Jendarmeak ere zaldi gainean zebiltzan, Biarno aldeko jendarme pare bat, zehazkiago. Beren buruen erakusten ari ziren, bazterren zaintzen baino gehiago, ez baitzen zaintzekorik. Halako batez, emazte gazte bat agertu zen, esku batean aterkia eta bestean pottoka txiki bat, txakur handi baten heinekoa, sokatik tiratzen zuela, pottoka zinezko txakurra iduri.

Gaur ere izanen da Garruzeko azoka. Zaldiak ikusi nahi dituenak, ordea, aukera galdua du. Aldi honetan, ohi bezala, behiak salduko dituzte Garruzeko plazan.



MUEBLES
LA CHIMENEA



AUKERAKO ALTZARIAK

1.000 metroko erakusketa, prezio harrigarriekin. Aukera zabala tekazko, haritzezko, intxaurrendozko altzari trinkoetan. Markarik garrantzitsuenetako koltxoak eta somierrak **%50ean**.

Ehunka altzari urratu txikiekin eta baita haiek gabe ere **%50ean**. Izugarrizko beherapenak larruzko tresilloetan.

LA CHIMENEA ALTZARIAK

Osinalde Industrialdea-USURBIL - Tel.: 943 370966